

Sestao, 2016ko maiatzaren 13a

**Begoñako Andra Mari-La Salle** ikastetxeko ikasleok hona, Udaletxera etorri gara, zuokin guztiokin gure euskararekiko konpromesua partekatzerara. Gu euskaldunak gara, euskara gurea denona delako eta batez ere, euskarak gu gaituelako.

Txikitan hasi ginen euskaraz egiten, gehienok eskolan entzun genuen hizkuntza lehen aldiz. Eta gaur egun, **euskaraz bizi nahi dugu Sestaon**. Sestao eta euskara elkarrekin nahi ditugulako. Herrian asko gara euskaraz moldatzen garenak eta euskara eskolatik kalera eta kaletik denongana eraman nahi dugu. Esparruak, aukerak, momentuak, lekuak... behar eta nahi ditugu euskaraz aritzeko.

Ikastetxea da gazte gehienontzat euskara entzuteko dugun aukera bakarra. Baina herrian ere entzun eta erabili, erabili eta entzun nahi dugu, udaletxean, alkatearekin; kalean munizipalekin; liburutegian liburuzainarekin, okindegian okinarekin; osasun-zentroan medikuarekin; plazan lagunekin... eta herriko festetan musikariekin... Euskaraz bizi eta disfrutatzecko!!!!

Azken finean... **Euskara erabiltzeak euskara maitatzea dakar!**

## HONA HEMEN GURE IRADOKIZUNAK...

### Ikastaroak...

- Musika Eskolako klaseak euskaraz eman.
- Polikiroldegietan aukera izan ikastaroak eta kirola euskaraz egin ahal izateko.
- Osasun Zentroetan medikuekin euskaraz egin, haur txikiekin eta gazteekin batez ere.
- Jubilatuentzako euskara klaseak antolatu.
- Aisialdirako tailerrak-eta euskaraz eskaini gazteentzat.

### Sestaoko paisaia linguistikoa...

- Herriko iragarkiak euskaraz irakurtzeko aukera izan.
- Dendetako eta lokaletako iragarkiak, mezuak... euskaraz.
- Udaletxeko informazio digitala, lehenengo euskaraz.

### Liburutegia...

- Udal liburutegian euskaraz egin ahal izan. Lehen hitza euskaraz eta horrela erantzun.
- Euskal liburu berriak erosi, gaurkotuak.

### Jaietan...

- Taldeetako lehiaketak (*peñak*) euskaraz egin
- Euskal musika egiten duten taldeak ekarri herrira.

### Zinea eta antzerkia...

- Musika Eskolako zinemaldietan filmak euskaraz ikusi gura ditugu. Antzerkia ere euskaraz gozatu nahi dugu.

*Eskerrik asko guztioi, Udaletxean honelako aukerak eskaintzeagatik eta gure berbak entzuteagatik. Ea guztion artean Sestao herri euskaldun bilakatzen dugun! Horretarako euskarak duen tresnarik onena erabiliko dugu: **hitza!***

**Begoñako Andra Mari - La Salle ikastetxeko ikasleak**